

## LIZTOR BELTZAREN AURKAKO KANPAINA AZPEITIAN



### ERLEEN GARRANTZIA BIZITZARAKO




Landare askoren iraupenerako ezinbestekoak dira erleak. Intsektu polinizatzaileen menpe dago hainbat elikagairen produkzioa: kiwiak, kalabazak, kuitxoak, meloiak, almendrak, sagarrak, gereziak, mertxikak, udareak, aranak, nektarinak eta irasagarrak. Polinizazioaren bidez erleak inguruko fruitu produkzioa handitzen du. Esaten denez ezitan baino irabazi gehiago uzten duela erleak ingurunean. Erleak desagertzeak ingurumenean eta ekonomian izango lituzke ondorioak.



Erleen kopurua nabarmen gutxitzen ari da munduan, pestiziden, gaitzen (Varroa bizkarroia) eta erleen habitaten deuseztatzearen eraginez. Arrazoi horiei, Euskal Herrian, beste bat ere gehitu behar zaie azken urteetan: Asiako liztorra (Vespa velutina nigotorax). Erlezain profesionalak gutxi badira ere, asko dira etxerako ezitia eta bestelako produktuak lortzeko edo fruta arbolak polinizatzeko erleak dituztenak. Erleak mantentzea gero eta gehiago kostatzen zaiela onartu dute.

Gipuzkoan, Nafarroako mendialdean eta Ipar Euskal Herrian erlezainak hura akabatu nahian dabilta. Asiako liztorrak erle ehiztariak dira: erleak polena hartzetik bueltan datozenean harrapatzen ditu erlauntzaren aurrean, eta burua kentzen die. Erlauntz baten aurrean liztor asko jartzen badira, erleak ez dira ateratzen, beldurragatik. Ondorioz, erlauntzeko hornigaiak bukatu, eta erleak gosez hiltzen dira.

### GIZAKIAK ERLEENGANDIK ATERA DUEN PROBETXUA:

 <p><b>EZTIA</b></p>	<p>Erleak landareetatik biltzen duen nektarrarekin ezitia egiten du eta abaraskan biltzen du larbei jana emateko. Guretzat aldiz ezitia aspaldi izan da gozo iturri.</p>
 <p><b>PROPOLEOA</b></p>	<p>Zuhaitz begietatik jasotzen duen gai pegajoso (erretxina modukoa) da eta erleak erlauntzeko zirrikituak ixteko eta guztia desinfektatzeko erabiltzen du.</p>
 <p><b>POLENA</b></p>	<p>Erleak landareetatik biltzen du larbei jana emateko.</p>

# ELIKADURA JASANGARRIA

 <p><b>ERREGINA JELEA</b></p>	<p>Erleak buruan duen guruin batek jariatzan duen sustantzia da. Larbei hiru egunetan ematen zaie jateko eta erregina izango denari sei egunetan.</p>
<p><b>ARGIZARIA</b></p> 	<p>Erleak ezta janda argizaria sortzen du eta hau abaraskak egiteko erabiltzen du. Gure artean argizaria solairuari edo egurrezko altzariei emateko erabiltzen zen, baita azaleko gaitzen kontrako ukenduak egiteko intxusa azalarekin nahastuta eta batez ere kandelak egiteko, nahiz gaur egun erabilpen hau desagerturik egon.</p> <p>Gaur egungo erabilpenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dermatologian estimatua da zikatritzatzaile eta antiinflamatorio gisa.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorne-zorro, erredura, ebaki, eskara, zauri edo azaleko orbanak sendatzeko ukenduak egiteko.</li> </ul> </li> <li>• Abaraska mastekatzeak alde onak ditu sinusitis, asma edo polen-alerjiaren aurka (ahoa sartu, estia irentsi eta abaraskako argizaria, ahoan txiklea balitz bezala minutu batzuetan erabili ondoren, kanporatu egiten da).</li> <li>• Ukenduak egiteko.</li> <li>• Supositorioen osagai bezala.</li> <li>• Hainbat kosmetikako produktuetan eszzipiente bezala:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- azaleko pomadatan</li> <li>- zimurren aurkako kremetan</li> <li>- errimeletan</li> <li>- demakilanteetan</li> <li>- ...</li> </ul> </li> <li>• Erlezaintzarako: abaraskak zahartzen direnean, erlezainak erleari kendu eta urtu egiten ditu. Operazio hori egin ondoren erleari berriro jartzen dizkio argizarizko laminak berak berriro abaraskaz bete ditzan.</li> <li>• Harrizko paretak konpontzeko,</li> <li>• Larruzko oinetakoak edo mendiko botak garbitzeko.</li> <li>• Landare-txertaketarako ukendua egiteko.</li> <li>• Fundiziorako: eskultoreek argizaria erabiltzen dute metalezko eskulturak egiteko.</li> </ul>

## ERLEAREN GAITZAK ETA ETSIAK

Erleak baditu gaixotasun eta arriskuak: bakterioak, birus edo onddoek sortutako gaitzek harrapatu eta erlauntza osoa gaixotu, bere etsairen batek ezta lapurtu, beste baten atzaparretan hil...

### Gaixotasunak:

Euskalerian ezagunenak Nosemiasia eta Lokea, biak mikrobioek eraginda dira, lehenengoak erle helduak erasotzen ditu eta bigarrenak larbak hiltzen ditu.

### Xomorroak:

Liztorrek erlea hegan doala harrapatzen dute, zorriek ahotik janaria kentzen diete, Varroak odola zurruputzen diete, tximeleta piratak ezta jaten diete, armiarmak bere saretan harrapatzen du...

### Ornodunak:

Erlatxoriak, enarak, okilak eta beste txori intsektujaleek milaka erle jaten dituzte. Igel, musker eta sugandilek ere gustukoak dituzte. Saguek, arratoiek, azkonarrek... ezta kentzen die... Gizakiok ere milaka urtetan ezta lapurtu diegu, baina gaur egun erlezaintzari esker inork baino hobeto ezagutu eta zaintzen ditugula esan dezakegu.

## ERLEZAINAK AZPEITIAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, Azpeitian 12 erlezain daude, eta hauek 119 erlauntzi dituzte guztien artean leku desberdinetan banatuta (erlauntzi guztiak ez dauzkate Azpeitian). Beraz, datu hauen arabera, esan daiteke herrian badugula erleenganako afizioa duen jendea. Hauetako batzuek erleak lekuz aldatzen dituzte urte-sasoiaren arabera polinizatorako e.a. erabiltzen dituztelako eta aldi berean, erleek ematen dizkieten produktuak aprobetxatzen dituzte.

## LIZTOR BELTZAREN AURKAKO PROTOKOLOA AZPEITIAN

Liztor beltza tamaina handiko liztorra da eta, jatorriz, Asiakoa.

Loreen nektarrez, fruta helduz eta harrapatzen dituen erle eta beste intsektu batzuegandik lortzen duen proteinaz elikatzen da.

Liztor beltza, gure lurraldean dagoen Europako liztorren oso antzekoa da. Halere, gorputzaren kolore beltzak eta hanken kolore horiak besteengandik bereizten dute.

Liztor beltza edo Vespa velutina intsektuari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak udal eta Landa Garapenerako Elkarteekin eragile batzuekin batera lan protokoloa prestatu dute.

UROLA-KOSTA eskualdeko herrietan URKOMEK (Urola Kostako Landa Garapenerako Elkarteak) zerbitzu orokorra eskeintzen du liztor beltzen habiak suntsitzeko eta inaktibatzeke. Honela, Azpeitiko Udalak URKOMEn bidez zerbitzu hori eskaintzen du, eta URKOMEK kontratatuta daukan enpresaren bidez suntsitzen edo inaktibatzen dira habiak herrian; baina, habiak kokatuta dauden tokiaren arabera (altura, arriskua), basozainen bidez edo suhiltzaileen bidez ere egiten da suntsitze edo inaktibatze lan hori.

- Edozein herritarrek, liztor beltzaren habia ikusten badu udaletxera dei egin behar du protokoloa martxan jartzeko.
- Udaletxeak arduratuko dira prozedura martxan jartzeaz.
- Zerbitzua gune urbanoetara zein ez urbanoetara zabaltzen da.

# ELIKADURA JASANGARRIA



## 2015. URTEAN LIZTOR BELTZAREN AURKA EGINDAKO JARDUNEN ONDORIOAK GIPUZKOAN ETA AZPEITIAN

2015. urtean (2015-01-01etik 2015-12-31ra)

LIZTOR BELTZAREN SUNTSITUTAKO HABIAK	
GIPUZKOAN (ebatzitako kasuak habiak kenduta edo kendu gabe)	<b>1.208</b>
AZPEITIAN	<b>49</b>
LIZTOR BELTZA EZ DIRENEN SUNTSITUTAKO HABIAK	
GIPUZKOAN (ebatzitako kasuak habiak kenduta edo kendu gabe)	<b>67</b>
AZPEITIAN	<b>3</b>

Liztor beltzaren aurkako kanpaina honetan guztiok har dezakegu parte; beraz, saia gaitezen geu ere liztor hauen habiak identifikatzen.

Nik liztor beltzaren habiarik ikusten badut udalzaingora deituko dut protokoloa martxan jarri dezaten!!!

**943 15 13 13**

Eta zuk?

